

KOSTUAK

HASIERAKO INBERTSIOA



Gure negozioia martxan jartzeko bulego bat alokatuko dugu. Lokalaren prezioak ikertu ditugu eta erabaki dugu Lamiakon alokatzea, lekurik merkeena delako. Lokala bulego eta denda moduan erabiliko dugu. Beste aldetik, marka erregistratzea ere ezinbestekoa da, etorkizunari begira jabetza arazorik ez izateko. Hau egiteko gestoria baten bidez egingo dugu, arazoak ekiditeko. Bulegoa egokitzeko 2 mahai luze, 10 aulki, sofa bat, arbela bat eta 5 ordenagailu beharko ditugu lan egin ahal izateko.

Altzairuak Ikean erosiko ditugu kalitate ona eskaintzen dutelako prezio gutxigatik.

Gure enpresa promozionatzeko marketing kanpaina bat antolatuko dugu. Sare sozialen bidez eta marketing agentzia baten zerbitzuak eskuratuko ditugu lana errazteko. Interneten bidez salduko dugunez, web orri bat sortu beharko dugu. Kalitatezko eta itxura bikaina duen web orri bat nahi dugunez, web orriak sortzen dituen enpresa baten zerbitzuak eskuratuko ditugu ere.

KOSTU FINKOAK

Kostu finkoei begira, hainbat kostu finko ordaindu behar ditugu. Alde batetik lokalaren alokairua, hilabetero 495€-koa izango da. Horrez gain, bulegoaren barruan hornidurengatik ordaindu behar duguna hilabetero 70€-koa izango da eta internet konexioa 40€-koa. Zergei eta tasei begira, ordaindu beharko ditugun tasa eta zerga guztiek batera urtean 700€ izango dira eta bukatzeko seguruagatik 75€ ordainduko ditugu eta seguruagatik 100€.



KOSTU ALDAKORRAK



Kostu aldarreko gastuak hilabetero aldatuko egingo dira. Arropa erosteko kostuak aldakorrak izango dira, gure salmenten mende egongo direlako. Salmenta gehiago baditugu kostu handiagoak izango ditugu arropa gehiago erosi behar izango dugulako, baina diru gehiago irabaziko dugu zenbat eta gehiago saldu. Horregatik atal honetan arropa erosteko dirua jarri dugu, aldakorra delako eta hilabetero aldatu egingo delako.

Hemen txertatzen dugu kalkulu orri bat, gure gastuak aurkezten dituena.